

XEDAPEN OROKORRAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1298

340/2015 EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 1ekoa, Osakidetza-euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuari atxikita dagokion kontratazio-mahaia sortzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ente Publikoko estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikulua araber, Entearen Zuzendaritza Nagusiak, Administrazio Kontseiluak alde aurretik baimena eman ondoren, beharrezko jotzen diren kontratazio-mahaia eratuko ditu, beti ere, Ente Publikoko erakundearen tamainaren arabera, eta kontratazio-organuari kontratuak esleitzen laguntzeko, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 320 artikulua xedatutako jarraibideak kontuan izanda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Ente Publikoko estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikulua hauxe ezartzen du:

Eratzen diren kontratazio-mahaiek, nolahi ere, kide hauek izango dituzte:

- a) Mahaiburua: dagokion erakundeko zuzendaria, kontratazio-organokoa ez dena.
- b) Bi mahaikide, kontratazio-organokoa izendaturikoak.
- c) Mahaikide-idazkari bat. Kontratazio-organokoa izendatuko du erakundeari atxikita dauden letraduen artetik edo zuzenbidean lizentziadun diren kudeaketa-teknikarien artetik. Lege-aholkulari eta mahaiko idazkari lanak egingo ditu eta hitza zein botoa izango du.

Osakidetza Ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2014ko abenduaren 30eko Erabakiaren arabera (2015eko urtarrilaren 26ko EHAA, 16. zenbakia), Bizkaiko Osasun Barrutian Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratua sortzen da, Ezkerraldea-Enkarterriko eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu-erakundeek osatuta.

Kontuan hartu behar da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutuek ezarritako prozedura eta kontratazio administratiboaren plangintza- eta betearazte-beharrizan atzeratzea, betiere Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratua bateratzea eta integrazioa gauzatzeko asmotan.

Aipatutako guztiagatik, zuzendaritza nagusi honek, eta legez emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DU:

Ezkerraldea-Enkarterriko eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu-erakundearen kontratazio-mahaia eratzeko aurreko ebazpen guztiak baliogabetzea, eta Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integraturako beste mahai bat sortzea, aurrekoa ordezkatzuz, eta honela geratuko dena:

Mahaiburua:

Titularra: Ekonomia eta Finantzako zuzendaria

Ordezkoa: Ekonomia eta Finantzako zuzendariordea

1. mahaikidea:

Titularra: Fermín Labaien Beraza

Ordezkoa: Eurne Ormaetxeberria Legarra

2. mahaikidea:

Titularra: Esther Cuesta de la Cal

Ordezkoak: Teresa Acaiturri Ayesta

3. mahaikidea:

Titularra: Carmen León Araujo

Ordezkoa: Eduardo Resines Galaz

Mahaikide-idazkaria:

Titularra: Serafin Vigiola Larrinaga

Ordezkoa: José Ángel Martínez Rodríguez

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107., 114. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legeak aldatua), administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osakidetza Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.